

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

93

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 16koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enpleguaren alorrean kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiak COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko aitortutako alarma-egoerak ekarritako baldintzetara egokitzeko aparteko neurrien aldaketak argitaratzen dituena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2020ko abenduaren 15eko bilkuran hartutako Erabakiaren bitartez, aparteko neurriak aldatzea onartu du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enpleguaren alorrean kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiak COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko aitortutako alarma-egoerak ekarritako baldintzetara egokitzeko. Bada, Lanbideko zuzendari nagusiari dagokio aparteko neurri horiek argitaratzea, maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bitartez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko p) apartatuarekin bat etorritz.

Azaldutakoa dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enpleguaren alorrean kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiak COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko aitortutako alarma-egoerak ekarritako baldintzetara egokitzeko aparteko neurrien aldaketak, erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak 2020ko abenduaren 15eko bilkuran hartutako Erabakiaren bitartez onartutakoak, eta Ebazpen honen eranskinean jaso direnak.

Bigarrena.– Jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiak, aparteko neurrien aldaketak onartzen dituenak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea, aparteko neurriak aldatzea onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela, zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 16a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ENPLEGUAREN ALORREAN
KUDEATZEN DITUEN DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAK COVID-19AK ERAGINDAKO
OSASUN-LARRIALDIKO EGOERARI AURRE EGITEKO AITORTUTAKO
ALARMA-EGOERAK EKARRITAKO BALDINTZETARA EGOKITZEKO APARTEKO
NEURRIAK ALDATZEA

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2020ko ekainaren 23ko bilkuran hartutako Erabakiaren bitartez, aparteko neurri batzuk onartu zituen erakunde autonomo honek enpleguaren alorrean kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez aitortutako alarma-egoerak ekarritako baldintzetara egokitzeko asmoz, baita une hartan indarrean zeuden birusaren hedapena murrizteko neurrietara eta, aldi berean, osasun-krisiari aurre egiteko hartutako erabakiek ekonomian eta enpleguan eragiten zituzten ondorio negatiboak arintzeko onartu ziren neurrietara ere, neurri horiek enpresen jarduera etetea edo murriztea baitzekarten berekin.

COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiak enpresengan eta enpleguarengan izandako ondorio negatiboek bere horretan jarraitzeak ekonomia- eta enplegu-arloko neurriak hainbat aldiz luzatzea eragin du. Azken luzapena irailaren 29an onartu zen, 30/2020 Errege Dekretuaren bidez, eta ezartzen zuen martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan xedatzen ziren aldi baterako enplegu erregulazioko prozedurak malgutzeko eta arintzeko ezohiko neurriak mantenduko direla 2021eko urtarrilaren 31 arte, bai eta horiei lotutako aparteko neurriak ere, langabezia-babesaren eta kotizazioen arloan. Era berean, neurri zehatzak aurreikusten ditu enpresen jarduerari eragozpenak edo mugak ezarri izanarekin zerikusia duten lanaldi-murrizketetarako eta kontratu-eteteetarako, baldin eta agintari eskudunek hartutako euste-neurrien eta neurri murriztaileen ondoriozkoak badira.

Bestalde, kontuan hartuta COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren bilakaera negatiboa, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez, birusak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko alarma-egoera deklaratu zen berriro, eta egoera hori 2021eko maiatzaren 9ra arte luzatu zen, azaroaren 3ko 956/2020 Errege Dekretuaren bidez.

EAEen, deklaraturako alarma-egoeraren esparruan, gaixotasuna prebenitzeko eta zabaltzea ekiditeko berariazko neurriak ezarri dira, autonomia-erkidego honetako egoera epidemiologikoaren bilakaera kontuan hartuta, Lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren eta horren ondorengo aldaketan bidez. Neurri horiek pertsonen mugikortasuna mugatzen dute, bai Euskal Autonomia Erkidegoko sarrera eta irteerei dagokienez, bai eta bizi diren udalerriri dagokionez ere. Era berean, lokalen, instalazioen eta talde-jardueren edukiera mugatzen duten neurriak ezartzen dira, gizarte-urruntzea errazteko prebentzio gisa.

Azaldutako egoerek eragin zuzena dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain dituen zerbitzuetan, bai zuzeneko kudeaketan bai erakunde laguntzaileen bidez, eta eragina dute, baita ere, erakunde autonomo honek enplegu-politika aktiboan arloan kudeatzen dituen laguntza-deialdiak betetzeko baldintzetan.

Lanbideren Administrazio Kontseiluak deialdiak egokitzeko aparteko neurriak onartu zituenetik izan diren aldaketak direla eta, beharrezkoa da neurri horiek berrikusi eta aldatzea, egoera berrietara egokitzeko dirulaguntzen baldintzetako batzuk, finantzaturako jarduerak gauzatzeko moduak eta laguntzen justifikazioa.

Hori horrela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak, 2020ko abenduaren 15eko bilkuran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enpleguaren alorrean kudeatzen dituen dirulaguntzen deialdiak COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko deklaraturako alarma-egoerak ekarritako baldintzetara egokitzeko aparteko neurriak (2020ko ekainaren 23an onartu zirenak, 2020ko uztailaren 3ko EHAAn argitaratuak) aldatzea onartu zuen, ondoren adierazten den moduan:

1. artikulua.– 1. artikulua aldatzea: Enplegu lagunduko jarduketetarako laguntzak. 2020ko ekitaldia.

Aldatu egiten da aparteko neurrien 1. artikulua, zeinak, aurrerantzean, honako idazketa hau izango baitu:

«1. artikulua.– Lagundutako enpleguko jarduketetarako laguntzak. 2020ko ekitaldia. (Deialdia eta oinarri arautzaileak eranskinean, 1. puntuan).

1.– Urriaren 29ko 168/2019 Dekretuaren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraikiz, diruz lagundutako enpleguaren unitateko kideztat hartua izateko, lagundutako enpleguko jarduketetan urteko benetako dedikazioaren gutxieneko lanaldi jakin bat egiaztatu behar da. Bada, lanaldi hori zenbatzean, ez da kenduko lan-kontratua etenda egon den denbora, ez eta lanaldia aldi baterako murriztuta egon den denbora ere, etete edo murrizketa horiek 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegua erregulatzeko prozeduren bidez egin badira.

2.– Urriaren 29ko 168/2019 Dekretuaren 25.2 b) artikuluan lan-aukerak aztertze, bilatzeko eta aurkitzeko jarduera egiteagatik aurreikusitako dirulaguntzari dagokionez, 2020ko martxoaren 14tik uztailaren 31ra arteko tartean eta 2020ko urriaren 25etik abenduaren 31ra arteko tartean, onartu egingo dira enpresekin tresna telematikoen bidez (telefonoa, bideokonferentziak, posta elektronikoa, etab.) egindako elkarrizketak, betiere, elkarrizketa egin duen enpresako langilearen sinadura, eskuzkoa edo digitala, jasotzen bada, 2020ko ekitaldia amaitu baino lehen, edo, hori ezin bada, auditoretza-pista egokia gordetzen bada izandako hartu-emanen zerrenda eta erregistroak eginez.

Bestelako bitarteko horien bidez egindako bisiten % 54 lagunduko da diruz gehienez, lana bilatzeko jarduketetan emandako lanaldiaren arabera.

3.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua edo/eta irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak ez dira kontuan hartuko lagundutako enpleguko jarduketetan hartzaile diren eta desgaitasuna duten pertsonen kontratazioen gutxieneko lanaldiko eskakizuna egiaztatzean (168/2019 Dekretuaren 22.2 artikuluan eskatzen da).»

2. artikulua.– 4. artikulua aldatzea: Enplegua sustatzeko tokian tokiko ekintzetarako laguntzak. 2019ko ekitaldia.

Aldatu egiten da aparteko neurrien 4. artikuluan 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak ez dira kontuan hartuko deialdi 6.1.2.e), 6.2.1.b) eta 6.4.1.c) artikuluetan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, 2. motako (3. motan sartutakoak barne) eta 4. motako proiektuetan, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntzaren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

3. artikulua.– 5. artikulua aldatzea: Enplegua batez ere eremu eta udalerrri behartsuetan sustatzeko toki-ekintzetarako laguntzak. 2019ko ekitaldia.

Aldatu egiten da aparteko neurrien 5. artikulua 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 5.1.2.e) eta 5.2.1.b) artikuluetan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, 2. motako proiektuetan, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntzaren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

4. artikulua.– 6. artikulua aldatzea: Lehen Aukera programa. 2019ko ekitaldia.

Aldatu egiten da aparteko neurrien 6. artikulua 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 3.2.d) artikuluan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntzaren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

5. artikulua.– 7. artikulua aldatzea: Lehen Aukera programa. 2020ko ekitaldia.

1.– Aldatu egiten da aparteko neurrien 7. artikulua 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 3.2.d) artikuluan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntzaren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

2.– Azken paragrafoa gehitzen zaio 7. artikulua 2. zenbakiari; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«Kasu horietan, ez da aplikagarria izango deialdiaren 11. artikuluan aurreikusitako 2021eko abenduaren 18ko data.»

6. artikulua.– 8. artikulua aldatzea: Gazteen itzulera sustatzeko laguntzak. 2019ko ekitaldia.

Aldatu egiten da aparteko neurrien 8. artikulua 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 3.2.c) artikuluan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntza-aren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

7. artikulua.– 9. artikulua aldatzea: Gazteen itzulera sustatzeko laguntzak. 2020ko ekitaldia.

1.– Bigarren paragrafo bat gehitzen zaio 9. artikuluko 1. zenbakiari; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«Kasu horietan, diruz lagundutako aldiaren amaiera-data deialdiko 3.1 artikuluan berandueneko datatzat finkatutako data (2021eko azaroaren 26a) baino beranduagoa izan daiteke.»

2.– Aldatu egiten dira 9. artikulua 2. eta 3. zenbakiak; honela geratzen dira idatzita:

«2.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 3.2.c) artikuluan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntza-aren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.

3.– Deialdiaren 5.1.b) artikuluan xedatzen da Euskal Autonomia Erkidegora itzuli zirenetik 6 hilabeteko egonaldia egin behar dutela gutxienez; bada, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerak irauten duen bitartean eta urriaren 26ko 36/2020 Dekretuan edo horren ondorengo aldaketetan jasotako mugikortasun-murrizketak irauten duten bitartean, egonaldi hori etentzat joko da, eta berriz zenbatzen jarraituko da, gelditzen zaion denboraz, aipatu egoera bukatutakoan.»

3.– Azken paragrafoa gehitzen zaio aparteko neurrien 9. artikulua 4. zenbakiari; paragrafo horrek hurrengo idazkera izango du:

«Kasu horietan, ez da aplikagarria izango deialdiaren 12.1 artikuluan aurreikusitako 2021eko abenduaren 6ko data.»

8. artikulua.– 10. artikulua aldatzea: 30 urtetik gorako epe luzeko langabeak kontratatze laguntzak. 2019ko ekitaldia.

Aldatu egiten da aparteko neurrien 10. artikulua 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«2.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikulua eta/edo irailaren 29ko 30/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 3.2.c) artikuluan eskatutako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntza-
ren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

9. artikulua.– 11. artikulua aldatzea: 30 urtetik gorako epe luzeko langabeak kontratatze-
ko laguntzak. 2020ko ekitaldia.

1.– Bigarren paragrafo bat gehitzen zaio 11. artikuluko 1. zenbakiari; paragrafo horrek hurrengo
idazkera izango du:

«Kasu horretan, diruz lagundutako aldiaren amaiera-data deialdiko 3.1 artikuluan berandue-
neko datatzat finkatutako data (2021eko urriaren 29a) baino beranduagokoa izan daiteke.»

2.– Aldatu egiten da aparteko neurrien 11. artikuluen 2. zenbakia, eta honela geratzen
da idatzita:

«2.– 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluek eta/edo irailaren 29ko 30/2020
Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua aplikagarri zaizkien aldi baterako enplegu erregu-
lazioko espedienteek eragindako aldi baterako lanaldi-murrizketak, diruz lagundutako
kontratazioei eragiten dietenak, ez dira kontuan hartuko deialdiko 3.2.c) artikuluan eskatu-
tako gutxieneko lanaldiaren eskakizuna bete den ala ez aztertzerakoan.

Edonola ere, lanaldiaren aldi baterako murrizketa horiek kontuan hartuko dira dirulaguntza-
ren amaierako zenbatekoa kalkulatzeko, hori proportzio berean murriztuko baita.»

3.– Azken paragrafoa gehitzen zaio aparteko neurrien 11. artikuluen 3. zenbakiari; paragrafo
horrek hurrengo idazkera izango du:

«Kasu horietan, ez da aplikagarria izango 12.1 artikuluan aurreikusitako amaiera-data
(2021eko azaroaren 26).»

10. artikulua.– 12. artikulua aldatzea: Enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak garatzeko
laguntzak. 2020ko ekitaldia.

1.– Bigarren, hirugarren eta laugarren paragrafoak gehitzen zaizkio 12. artikuluko 1.3. zenba-
kiari; paragrafo horiek hurrengo idazkera izango dute:

«Era berean, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoer-
ak indarrean dirauen bitartean edo 2019-2021 deialdiko II. eta III. kapituluaren babesean diruz
lagundutako enplegurako orientazio-ekintzak eta -zerbitzuak burutzeko aurreikusitako epea
amaitu arte, epe hori alarma-egoera baino lehenagokoa balitz, onartu egingo da deialdiko 4.
eta 11. artikuluetan deskribatutako ekintza eta orientazio-zerbitzuak era ez-presentzian
egitea, 2020ko urriaren 25etik aurrera.

Zerbitzua eman dela frogatzeko, eskatzaileak sinadura biometrikoarekin zerbitzu hori jaso
duela erregistratu ahal izango du entitatean, zerbitzua eman eta gehienez ere 2 hilabeteko
epean. 2020ko urriaren 25etik abenduaren 31ra artean egindako ekintzen kasuan, epea
2021eko otsailaren 26an amaituko da.

Joan-etorriak ahal den neurrian murrizteko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sistema bat
jarriko du abian, eskatzaileari ahalbidetuko diona modu ez-presentzian jasotako zerbitzu
bat telematikoki erregistratzea; eta horren berri emango zaie erakunde laguntzaile onuradu-
nei, sistema martxan jartzen den unean.»

2.– Aparteko neurrien 12. artikuluari 2.3. zenbakia gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«2.3.– Enplegu-zentroaren zerbitzua emateko urteko bigarren aldi osoan, ez da aplikagarria izango deialdiaren 18.7 artikuluan ezarritakoa, hau da, gutxieneko taldeko ekintzak egin beharrari buruzkoa.

Aurrekoarekin bat etorriz, ez da aplikagarria izango deialdiaren 21.2.b) artikuluan aurreikusitakoa, hau da, zerbitzua ematen den urteko bigarren aldiaren taldeko ekintzak ez egiteagatik dirulaguntza murriztea.»

3.– Aparteko neurrien 12. artikuluari 2.4. zenbakia gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«2.4.– Gelaren aforoa mugatzeko eta erabiltzaileen artean beharrezko distantzia bermatzeko, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerak indarrean dirauen bitartean edo 2019-2021 deialdiko IV. kapituluaren babesean diruz lagundutako enplegu-zentroaren ekintzak burutzeko aurreikusitako epea amaitu arte, epe hori alarma-egoera baino lehenagokoa balitz, onartu egingo da erabilgarri dauden ordenagailuen kopurua % 50era murriztea; hala, deialdiaren 20.3.c) artikuluan exijitzen den gutxienekoa 2 ordenagailura murrizten da.»